



31 - 32 / 0000003

NOMBRE - 0000003
DIRECCION - 0000003
20001 MUNICIPIO - 0000003
PROV - 0000003

Zergadun hori:

Idatzi honen bidez jakinarazi nahi dizugu iaz egin genizun errentako autolikidazio proposamena **aurten EZIN izan dugula prestatu**.

Ahalik eta proposamen gehien prestatzea izan ohi da errenta kanpainetan gure erronketako bat, aurkezpenaren tramiteak errazteko beti. Horrela, urtero 250.000 proposamen inguru prestatzea lortu dugu.

Zure egoera tributarioa iazkoaren aldean aldatu delako ez dizugu autolikidazio proposamenik egin; gainera, une hauetan ez dugu eskura behar den informazioa proposamena **zehaztasun osoz** prestatzeko.

Hortaz, 2020ko errenta aitortpena aurkezteko obligazioa baldin baduzu, beste modalitateetako edozein erabili beharko duzu: **mekanizatua** -baldin eta lortutako errentaren batek aukera hori eragozten ez badizu-, edo **internet**. Gogoan izan aitortpena aurkezteko epea datorren apirilaren 15ean hasiko dela, eta errenta mekanizaturako hitzordua eskatu dezakezula 943 11 30 00 telefonora deituz edo www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta helbidean sartuta.

Adeitasunez,

Jokin Perona Lerchundi
Ogasuneko eta Finantzetako diputatua

